* Ea nork asmatzen duen!

1. **Harresiaren astoak eta arrastoak**
2. **Ate ezkutu batera doa eskailera gardena**
3. **Etxe honen teilatu-hegalak jaurti ditzake sekulako kanoikadak.**
4. **Ate baten gainean eta olatu uhinen artean**
5. **Eliza-txoriei begira, erregeari ahotik dario euria**
6. **Etxe bakarra zen antzina, orain zatituta dago bina**
7. **Egunsentiko eguzki izpiak uzten ditu agerian bertako hizkiak**
8. **Etxe honetako jabea errimekin zen oso trebea**
9. **Sua pizterakoan, kea ageri da nire ahoan**
10. **Urak ez badu mugitzen harria, faltako zaigu taloa eta ogia**

Oarsoaldea

GIPUZKOA TURISMOA

EUSKADI BASQUE COUNTRY

"CEHIACO JAKIN NAHI DUZU?"

943 494 521

turismoa@oarsoaldea.eus oarsoaldeaturismoa.eus

Asto-tokia eta Harresia 1

Asto-tokian sartzen bagara, argi ikusiko dugu herriko harresiaren aztarna. Harresiaren gainean eraikita daude Goiko kaleko etxeak eta argi eta garbi ikusten da Morrontxo dorretxeraino doan zatia. Leku honi asto-tokia esaten zaio, garai batean, orain ikusten dugun eraikuntza berde horren lekuan, Udal azoka zegoenean, bertara etortzen ziren baserritarrek han uzten baitzituzten astoak lotuta. Oraindik ere badaude astoak lotzeko erabiltzen ziren burdinazko zirgiloak.

Torrekua 2

Torrekua dorretxeak bi ate zituen. Egun, haien arrastoak garbi ikus ditzakegu oraindik. Ez da ezagutzen noiz eraiki zen, baina 1494. urterako jada konponketa lanak egin zitzaizkion.
Harresiz inguratuta zegoen Errenteria, eta Morrontxo eta Torrekua dorretxeen artean Nafarroako atea kokatzen zen. Herriak bost sarrera zituen, eta haietako bakoitzak babeserako dorre bat zuen: Ugarritzakoa, Errebalekoa, Itsasoko atea, Nafarroakoa eta Frantziakoa.

Zubiaurre jauretxea 3

Zubiaurre jauretxearen ekialdeko fatxadan, teilatuan hain zuzen, kanoi itxurako gargola ikus daiteke. Harrizko isurki zirkular horrek goiko aldeko ura jaso eta kalera botatzen
zuen. Jauretxe hau herriko oinetxe zaharrenetako bat da. Herrian izandako familia nagusienei loturiko hiri jauregia da.

Beheko kalea, 9 4

Etxe honetako fatxadan XVII. mendeko galeoi bat ikus daiteke ateburuan zizelkatua.
Errenteriako hainbat etxetako fatxadetan irauten duten erliebe hauek, badiako biztanleek itsasoan zehar egindako ibilaldien eta ontzigintzan izandako jarduera handieraren lekuko dira.



Lehoi-gargola 5

Gargolak teilatuetako euri-ura kanporatzeko erabiltzen diren irtenuneak dira. Sarri animalia edo munstro itxuraz zizelkatuak daude. Erdi Aroko arkitekturan eta bereziki arkitektura gotikoan eliza eta katedraletan apaindura gisa ere erabili ziren maiz.

Kapitain Etxea 6

XVI. mendeko etxe honetako biztanleak ontzigile ezagunak izan ziren.
Matxin Uranzu edo Errenteriako Matxin itsaso-kapitainaren jaiotetxea izan zen.
Hortik datorkio Kapitainaren etxearen izena.
Etxea erdibitu egin zen etxebizitzak egiteko.
Gaur egungo Kapitain etxean Jantziaren Zentroa ireki da, Udalak birgaitze lanak egin ostean.

'Hitzen itzala' eskultura 7

Koldo Mitxelena omentzeko Ekain Olaizolaren monumentua.
Koldo Mitxelena Elissaltek (1915-1987), euskal hizkuntzalari eta idazleak, euskara batuaren oinarriak ezarri zituen, eta euskararen ikerketan gehien nabarmendu zen ikertzailetako bat izan zen.
2015ean bete zen bere jaiotzaren mendeurrena, eta monumentu hau jarri zen 2016an bere omenez.

Xenpelar etxea 8

Frantzisko Petrirena Rekondo "Xenpelar" (1835-1869) bertsolaria hil zen etxe honetan.
XIX. mendeko bertsolaririk onenetakotzat jotzen da.
Foru plazan bere omenez monumentu bat dago: Gotzon Huegunen "Xenpelarren fruituak" (2014).

Fabril Lanera. Tximinia 9

1876. urtetik aurrera Errenteria, oso herri industriala bihurtu zen.
1910ean, "Mantxester txikia" deitzen hasi zitzaion.
Errenteriak izan zituen fabrika garrantzitsuenetako bat izan zen Fabril Lanera.
Adreiluzko tximinia ikusgarri hau da gaur egun geratzen den fabrika haren aztarna bakarra.



Fanderia Errota 10

Dagoeneko XV. mendean bertan kokatzen zen burdinolak uraren indarra erabiltzen zuen energia sortzeko. Urteetan zehar, fanderia, errota, irin eta pentsu-lantegia ere izan zen. 1996 urtean itxi zen.
Gaur egun ibaiaren interpretazio gunea da, ingurumen eta kultura-ondarea ezagutzeko.